

5.5. Arauak: morfosintaxia (AS).

Ariketak

I. Bete itzazu hutsuneak partizipio marka egokiarekin.

1. Bostetan bil _____ gara zure bulegoan
2. Orain has _____ da hainbeste gusta _____ zaizun programa
3. Deituidazu etxera hel _____ zarenean
4. Copernicoren *De revolutionibus orbium celestium* lana 1543. urtean argitara _____ da/zen
5. Azal _____ didazu, mesedez, mapak nola egi _____ diren
6. Argazkigintza N. Niepcek 1828an asmatu bazuen ere, airetiko lehen argazkiak 1855ean atara _____ dira/ziren globo batetik.
7. Miren ikus _____ dudanean, kontatuko diot gertatutakoa

II. 20 perpauk hauetatik 5 okerrak dira. Zuzen itzazu okerrak.

1. Bihar eskolaren jaia ospatuko da.
2. Nire lagun bati gustatzen zaizkio apunteak hartzea
3. Joan izan banintz, agian txarrago izango litzateke.
4. Atarrabiako lagun bat ere etorriko da.
5. Saiatu dira, baina ez dituzte diru-laguntzarik lortu
6. Gol berri bat sartu behar zuen Athleticek partida irabazteko.
7. Badakit liburuak aukeratzeko
8. Mesedez, jezartzen zara?
9. Erosi dizkion liburuei dagokienean, ez dakit asmatuko duen.
10. Horregatik uste dut irailan ez liratekeela azterketarik egin beharko.
11. Erakutsi dizkizut ariketa hauek nola egin
12. Bera geratzen da beti Amaiari itxaroten
13. Aizue, nork ekartzen du ogia gaur afaltzeko?
14. ahaztu zait opariak ekartzea.
15. Zein ondo nagoen jakingo bazenu, lasterka etorriko zinen
16. Non afaltzen dugu gaur gauean?ñlk
17. Unibertsitateko matrikulari dagokionean, ikasle bakoitzak dagokionean egin behar du.
18. Zuekin haserretu da eta baita ere gurekin.
19. Askotan gezurretan aritzen zaren kezka dut.
20. Esaten didazu nork kontatuko dizun?

II. Zein d(ir)a zuzena(k) euskara batuan?

1. a) Haien izenak ez ezik, zein herritatik datozen jakin nahi nuke ere.
b) Gure zain genituen, baina futbol-zelaira agertu ere ez ginen egin.
c) Zuri ez zaizu gustatzen? Niri ere ez, bada!
d) Zu bakarrik joaten zinen mendira, baina batzuetan lagunekin baita ere.
2. a) Lehen gaiari dagokionez, informazio gehiegi zegoela adierazi zuen
b) Lehen gaiari dagokionean, informazio gehiegi zegoela adierazi zuen
c) Txanda dagokionean azalduko du egoera zein den
3. a) Nigandik iheska zabiltzalaren irudipena dut
b) Nigandik iheska zabiltzalako irudipena dut
c) Nigandik iheska zabiltzan irudipena dut
d) Irudipena dut nigandik iheska zabiltzala
4. a) Kolore bera zuten, eta zaporeak berdin-berdinak zituzten ere
b) Ez bakarrik merkeago saltzea, ordaintzeko epea luzatzea nahi genuke ere
c) Nirekin ez, baina haiekin ezta ere.
d) Amarekin joan ohi da zinemara, baina baita aitarekin ere.
5. a) Ni aurreko igandean igoko nintzatekeen mendio horretara eta ez gaur
b) Ni datorren igandean igoko nintzatekeen mendi horretara eta ez gaur
c) Ni datorren igandean igoko nintzen mendi horretara eta ez gaur
d) Ni datorren igandean igoko nintzateke mendio horretara eta ez gaur
6. Denek egia esan balute, atzo gauzak errazago konponduko _____
a) ziren
b) zirateke
c) lirateke
d) ziratekeen
7. a) Gaur ez dizkidazu hartu apunterik
b) Planik ez denean, telebista ikusten gelditzen da jendea.
c) Gaur ez didazu hartu apunterik.
d) Ez dizkidazu pasa atzoko apunterik.
8. Askoz ere hobeki pasako _____ hondartzan igerilekuan baino
a) nukkeen
b) nuen
c) nezake
d) nuke
9. a) Sute berri bat izan da Iruñerrian
b) Sute desberdinak izan dira aurten Euskal Herrian
c) Etorri den lankide berria bilbotarra da ere
d) Iruñerrian ere beste sute bat izan da goizean
10. a) Nik ez dut gogorik, prestatzen didazu afaria, mesedez?
b) Nik ez dut gogorik, prestatu diezadakezu afaria, mesedez?
c) Nik ez dut gogorik, prestatuko didazu afaria, mesedez?
d) Nik ez dut gogorik, presta zenidake afaria, mesedez?